## El número de bodas cayó un 7,1% el tercer trimestre del 2003 en Euskadi

DV. SAN SEBASTIÁN

Los matrimonios en el País Vasco se reducen año tras año, según las estadísticas. En los meses de julio, agosto y septiembre de 2003 se celebraron 3.376 matrimonios en el País Vasco, lo que supone una bajada del 7,1% respecto al mismo trimestre del año anterior. Éste sigue siendo el trimestre del año en el que más matrimonios se contabilizan, superando en 295 al anterior, según datos del Instituto Vasco de Estadística-Eustat.

Julio es el mes con más bodas, alcanzando las 1.344. Le sigue septiembre con 1.315, mientras que agosto sigue siendo el mes veraniego con menos enlaces, llegando a 717.

En Vizcaya tuvieron lugar 1.728 bodas, en Gipuzkoa 1.029 y en Álava 456. También hubo 163 matrimonios de vascos residentes fuera de la CAV.

También desciende un 1,3% el número de bodas religiosas. En el trimestre veraniego el 71,2% fueron de carácter religioso, 2.404, frente a 2.636 del verano pasado. En Vizcaya, el 73,6% de las bodas fueron por la Iglesia, en Gipuzkoa el 68% y en Álava el 64,3%. Para el 95% era su primer enlace.

# «Euskal Herriaren alderik folklorikoena erakusten dute testuliburu gehienek»

▶ Begoña Bilbao eta Karmele Perez Urraza irakasleek testuliburuak aztertu dituzte

FELIX IBARGUTXI. DV. DONOSTIA

«Euskal Herriaren eta euskal kulturaren azalpen azalekoa egiten dute gure haurrek erabiltzen dituzten testu-liburuek. Euskal kulturaren alderik folklorikoena erakusten dute, paisaiari lotua. Euskal Herriko neska-mutilek, hala Iparraldean nola Hegoaldean, ezin dezakete euskararen euskararen lurralde osoa entitate adierazgarritzat jaso. Euren ikasketetara zuzen-zuzen doa gaur eguneko banaketa autonomikoa edo departamentala. D ereduetan euretan ere, Elkar eta Erein-en testuetatik landa jardunez gero, euskal hizkuntzan ibili arren, erdal mundua, erdal herria, erdal kultura erabiliko da euskaraz», adierazi du Begoña Bilbaok. Bilboko Irakasle Eskolan irakasle lanean ari den emakume honek *Curriculuma eta kultura Euskal Herrian* liburua plazaratu du.

Utriusque Vasconiae argitaletxeak bi liburu atera ditu, biak curriculumari buruzkoak. Bata, Begoña Bilbaoren aipatutako hori, bestea Karmele Perez Urrazaren *Curriculuma eta testuliburua Euskal Herrian*. Bi lagunok eta Gurutze Ezkurdiak ikerketa zabal bat egin zuten, oinarri gisa Euskal Herrian argitaratutako testuliburuak hartuta, hasi 1925eko *Xabiertxo*-rekin eta 2000. urtera artekoak, baina ez guzti-guztiak, soilik *Ingurunearen ezaguera* gaiarekin lotura dutenak baizik. Behin datu-basea lortuta, ikerlari bakoitzak bere ikerbidea hartu zuen, eta doktore-tesi bana burutu. Atzo aurkeztu ziren bi liburuok tesien bertsio erraztuak dira, dibulgazio mailakoak eta hezkuntzako profesionalei zuzenduak batik bat.



Karmele Perez Urraza eta Begoña Bilbao, atzo Donostian. [MIKEL FRAILE]

«Niretzat ohore bat da liburuok ateratzea, beraien atzean ikerketa handia baitago, gutxienez sei urteko ikerketa», esan zuen atzo Paulo Iztueta editoreak.

### «Ikuspegi juridikoa»

Beren ikerketerako oinarri moduan, Ipar Euskal Herrian nahiz Hegoaldean hamar urteko neska-mutikoendako erabili diren testuliburuak hartu dituzte Bilbaok eta Perez Urrazak. Bilbaok atzoko aurkezpenean esan zuenez, 90eko hamarkadan gora egin dute Euskal Herriaren «ikuspegi juridikoa» duten testuliburuak, eta urritu «ikuspegi soziokulturala» dutenak. Hau da, gero eta gutxiago dira euskararen lurralde osoa kontuan hartzen duten testuliburuak, eta gero eta gehiago «ikuspegi hegemonikoa, egoera autonomikoa islatzen dutenak».

Bilbaoren ikerketan nahiz Perez Urrazarenean testuliburuen hiru aro bereizten dira: lehenengoa, 1876 eta 1974. urte-bitartea; 1975-1990 epea; eta 1990-2000 epea.